BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ UDALAREN HIRU ENPRESA PUBLIKOREN (OÑARGI SL, MERKAOÑA SL ETA OÑATIKO UR JAUZIAK SA) AUDITORETZA LANAK ETA UDALAK DIRUZ-LAGUNDUTAKO HIRU ERAKUNDEREN (MUSIKA BANDA, ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA ETA JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA) HITZARTUTAKO JARDUNBIDE-LANAK EGITEKO ZERBITZU- KONTRATUA

CPV: 79212100-4

Prozedura: Prozedura ireki sinplifikatu bidezko zerbitzu-kontratua

Gaia: Enpresen kasuan, 2026ko ekitaldiaren auditoretza-lanen kontratua eta diruz lagundutako erakundeen kasuan, 2025-2026ko ekitaldiaren hitzartutako jardunbideen azterketaren kontratua. Aiapatu kontratua, urtez urte luza daiteke, gehienez 3 ekitaldi (guztira 4 ekitaldi).

Honek izenpetu du agiria: Kontu-hartzaileak

1. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xede izango da UDALAREN HIRU ENPRESA PUBLIKOREN (OÑARGI SL, MERKAOÑA SL ETA OÑATIKO UR JAUZIAK SA) AUDITORETZA LANAK ETA UDALAK DIRUZ-LAGUNDUTAKO HIRU ERAKUNDEREN (MUSIKA BANDA, ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA ETA JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA) HITZARTUTAKO JARDUNBIDE-LANAK EGITEKO zerbitzua ematea.

2. Azterketa teknikoa

a. Kontsiderazio teknikoak eta eskakizunak

Esleipendunak, lanaren azken emaitza gisa, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu ekitaldi bakoitzeko:

- **Enpresei dagokienez, finantza-auditoretzari buruzko txostena.** Informatuko du ea urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, enpresaren dagokion ekitaldiko abenduaren 31ko ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten duten, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagokion emaitzarena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorriz, eta, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta arauekin.
- **Musika Banda, Aloña Mendi eta Musika Eskola erakundeei dagokienez, hitzartutako jardunbideen azterketa**. Azterketak adierazi beharko du ea Oñatiko Udalak emandako dirulaguntza bere xedera bideratu den ala ez, gutxienez, honakoa aztertuz:
  - Erakundearen eta bere ordezkarien datu identifikatzaileen azterketa

SINAad578b1d-09a2-4163-8669-2d8827db6230

- Ekitaldi ekonomikoaren Balantze ekonomikoa eta emaitzen azterketa (sarrerak eta gastuak)
- Emandako dirulaguntzaren dokumentazioaren azterketa eta sailen arteko banaketarena.

- Ikuskatutako erakundeen administrazio- eta kontabilitate-prozedurak hobetzeko auditoreak egoki **iritzitako iruzkinak eta gomendioak biltzen dituen txostena.**

Finantza-auditoretzako egindako lanaren barruan, eginkizun hauek egongo dira:

1.- Orokorki

- Auditoretza-prozedurak aplikatzean topatutako mugak.
- Aurreko ekitaldiko auditoretza-txostenean azaldutako salbuespenen berariazko adierazpena, salbuespenak gainditu baldin badira, baina baita bere horretan jarraitzen dutenena ere.
- Ahuleziak eta kontabilitate-prozedurak hobetzeko xedean auditoreak egoki irizten dituen era guztietako gomendioak, ondorioak eta iruzkinak.

2.- Esleipendunak, ekitaldiko kontuan ixtean, lagunduko die enpresei/erakundeei, eta Udalari, plantea litezkeen zalantzak argituz eta berrikusi egingo du helarazten zaion dokumentazioa, eta prest egongo da dei egiten zaionean berehalakoan bertaratzeko.

3.- Txosten eta azterketa horiek euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dira. Zehazki, txosten bakoitzetik bina kopia aurkeztuko dira, sinatuta.

b. Lanaren antolamendua:

Auditoretza-etxeko profesionalek egingo dute auditoretza-lana, betiere etxe horretako bazkide baten erantzukizunpean, eta udal Kontu-hartzailearekin eta auditatutako enpresetako/erakundeetako arduradunekin koordinatuta.
Nolanahi ere, enpresa-esleipendunak auditoretza alorreko arau tekniko orokorren arabera eta bereziki, sektore publikoko auditoretza-arauei jarraiki egingo dute beren lana.
Lanak aurrera eramateko, auditoreak ezinbestean egongo dira udal Kontu-hartzailearekin eta enpresetako/erakundeetako arduradunekin koordinatuta, eta bi aldeek egoki ikusten badute, bilerak egingo dituzte tarteka. Gainera, udal Kontu-hartzaileak:

- Lan-taldea handitzeko edo murrizteko eskatu ahal izango du txosten arrazoitubaten bitartez.
- Lanetan aplikatzen diren probak, laginak eta gainerako auditoretza-teknikak gainbegiratu ahal izango ditu.
- Auditoretza-lanaren gaineko kalitate-kontrola bideratu ahal izango du.
- Kontratua betetzen dela zainduko du.

Jarduera horiek inolaz ere ez dute zerbitzua etengo, eta beraz, erabateko independentzia izango du auditoretza-lanez arduratzen den enpresak.

c. Lan-plana

SINAad578b1d-09a2-4163-8669-2d8827db6230

Ekitaldian zehar eskatzen diren aholku eta kontsultez gain, hautemandako beharrizanen arabera planteatuko baitira halakoak, egin beharreko lanaren barruan egongo da, lanei ekin baino lehen, Kontu-hartzaileari eta auditatutako enpresetako/erakundeetako arduradunei Plangintzaren Memoria aurkeztea,non zehaztuko baitira **lan-programa** (berrikusi beharreko arloak, erabili beharreko metodologia eta legezkotasunaren esparruan berrikusi beharreko alderdiak) eta **egikaritzeko egutegia.**

Edozein kasutan muga hauek bete beharko dira:

ERAKUNDEA	**EGIN BEHARREKO URRATSA**	**EPEMUGA**
MUSIKA BANDA	Aurreko ekitaldiko kontuen hitzartutako jardunbideen zirriborroa	Hurrengo ekitaldiko martxoaren 15erako
ALOÑA MENDI	Aurreko ekitaldian amaitutako denboraldiko kontuen hitzartutako jardunbideen zirriborroa	Ekitaldiko ekainaren amaiera
MUSIKA ESKOLA	Aurreko ekitaldian amaitutako ikasturteko kontuen hitzartutako jardunbideen zirriborroa	Ekitaldiko ekainaren amaiera
OÑARGI SL	Kontuak eta memoria	Hurrengo ekitaldiko martxoaren 15erako
OÑARGI SL	Auditoretza txosten sinatua	Urteko Kontuak onartzen dituen Asanblada Orokorretik hilabetera
MERKAOÑA SL	Kontuak eta memoria	Hurrengo ekitaldiko martxoaren 15erako
MERKAOÑA SL	Auditoretza txosten sinatua	Urteko Kontuak onartzen dituen Asanblada Orokorretik hilabetera
OÑATIKO UR JAUZIAK SA	Kontuak eta memoria	Hurrengo ekitaldiko martxoaren 15erako
OÑATIKO UR JAUZIAK SA	Auditoretza txosten sinatua	Urteko Kontuak onartzen dituen Asanblada Orokorretik hilabetera

<u>Erakundeen ezaugarri nagusiak:</u>

- **Aloña Mendiren gastuak urteko: 890.000 €**
- **Musika Eskolaren gastuak urteko: 600.000 €**
- **Musika Bandaren gastuak urteko: 100.000 €**
- **Oñargi SL: 1.650.000 €ko gastuak eta 6 langile**

SINAad578b1d-09a2-4163-8669-2d8827db6230

- **Merkaoña SL: 560.000 €ko gastuak eta langile 3**
- **Oñatiko UrJauziak SA: 869.000 €ko gastuak eta 4 langile**

d. Erantzukizuna

Auditoretza-lana egiten duen auditoretza-enpresaren erantzukizunpean idatziko dira kontuen gaineko txostenak, enpresa horrek sinatuko du txostena, eta finkatuko Arau Tekniko eta legezko jarraibideen araberakoa izango da.

e. Giza baliabideak eta baliabide teknikoak

Deskribatutako lana egiteko, kontratutik eratorriko obligazioak betetzeko behar dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak izango ditu enpresa esleipendunak. Ondorio horiei begira, auditoretza-lanaren arduradun/bazkide batek, taldeko auditore buru batek eta laguntzaile batek osatuta egongo da lan-taldea.

Euskara izango da zerbitzu-hizkuntza.

f. Kontratua egikaritzea:

Honako jarduera hauek bideratu ahal izango dira auditoretza-prozedurak aplikatzeko:

- Auditoretza egiteko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazioguztia eskatu ahal izango da.
- Ondorioak oinarritzeko zantzuak lortzeko beharrezkotzat jotzen den edozein jarduera bideratu ahal izango da.

g. Kontratuaren fakturazioa:

- Erakunde bakoitzak bere faktura ordainduko du, esleipen prezioaren xehetasunaren arabera.
- Musika Banda, Aloña Mendi eta Musika Eskolaren kasuan, Oñatiko Udalaren gain joango da hitzartutako jardunbideen gastua.

h. Lanen konfidentzialtasuna

Esleipendunak bere lanean zehar ezagutzen duen informazio guztia isilpean edukitzeko obligazioa du, eta ezin izango du informazio hori auditoretza-lanak berezkoak dituen helburuekin bat ez datozen xedeetan erabili.

3. Azterketa ekonomikoa: aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-ɨaunkortasuna

Proposatzen den kontratoa egonkorra da finantziarioki, hori aurrera eramateko nahiko baliabide daudelako.

Aurreikusitako gastua Udal aurrekontuaren II. kapituluan jasotzen da urtero; beraz, bete egiten da aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa.

4. Exekuziorako baldintza bereziak:

SINAad578b1d-09a2-4163-8669-2d8827db6230

Enpresa lizitatzaileek honako lan-hitzarmenean jasotzen diren lan baldintzak aplikatuko dizkie langileei: azkena onartu den Bulego eta Despatxoeen hitzarmen kolektiboa .

Oñati, 2026ko uztailaren 15a

Kontu-hartzailea

EKS | CSV: SINAad578b1d-09a2-4163-8669-2d8827db6230
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Auditoretza-plegu teknikoa
CSV/EKS:	SINAad578b1d-09a2-4163-8669-2d8827db6230

Digitalki sinatua:

Paskual Elustondo Darpon
Kontuhartzailea
Data: 2026/07/15 12:17:31